

**DONOSTIA SUSTAPENA S.A. SOZIETATEAREN ENPLEGUA
 EGONKORTZEKO HAUTAKETA PROZESU BEREZIEI ETA ENPLEGUA
 EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO HAUTAKETA PROZESUEN DEIALDIA
 ETA OINARRIAK**

OINARRI OROKORRAK

LEHENA. DEIALDIAREN HELBURUA.

Deialdi honen helburua Donostia Sustapena, S.A. udal sozietate publikoarentzat zenbait lanpostu betetzeko kontratazioa egitea da. Sozietate honen xedea hirirako garapen jasagarri eta adimenduna sustatzea da, horretarako talentua, berrikuntza eta nazioarteko proiektzioa sustatuta, konplexutasuna kudeatzeari eta baterako lidergoari esker.

Deialdi honekin beteko diren lanpostuak enplegua egonkortzeko prozesu berezien eta enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen esparru barruan daude, 20/2021 Legeak, abenduaren 28koak, Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezartzen dituenak, xedatutakoaren arabera.

Deialdiko hautaketa prozesuak, prozesu mota, modalitatea, lanpostu kopurua eta prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoak xehatzen dituen eranskina hauek dira:

Lanpostua	Prozesu mota	Sistema	Sartzeko modalitatea	Lanpostuak guztira	Oinarri espezifikoaren eranskina
Ekonomia garapen eta merkataritza teknikaria	Egonkortzeko berezia	Lehiaketa-oposizioa	Orokorra	4	1. eranskina
Ekonomia garapen eta merkataritza teknikaria	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	7	2. eranskina
Plan estrategikoaren zuzendaria	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	3. eranskina
Administrazio eta kudeaketa teknikaria	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	1	4. eranskina
Administraria	Egonkortzeko salbuespenezkoa	Lehiaketa	Orokorra	5	5. eranskina

Deialdia publikoa eta irekia da eta deitu diren hautaketa prozesuak langileen hautaketarako enpresa batek kudeatu ahaliko ditu, betiere dokumentu hauetan ezarritako betekizunak eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak errespetatuta, deialdiaren

berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak errespetatuta, deialdiaren arau orokorren arabera eta dokumentu honetan jasotako hautaketa prozesu bakoitzaren berezitasunen arabera.

Hautaketa prozesu hauetatik eratorritako kontratazioak lan kontratu mugagabe baten formalizazio bidez gauzatuko dira.

Hautaketa hauek ez dute lan poltsarik sortuko.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK ETA BALDINTZA OROKORRAK.

Hautaketa prozesuetan parte hartu ahalko dute kasu bakoitzean eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino lehen betekizun baztertzailer hauek betetzen dituzten pertsonak. Betekizun hauek kontratua sinatu arte mantendu beharko dira:

- a) Espainian edo Europar Batasuneko estatu kideren batean legezko bizilekua izatea eta lan-baimena izatea.
- b) 16 urte beteta izatea.
- c) Lanpostuaren atazak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- d) Eskatzen den titulazioa izatea edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana, lanpostu bakoitzerako oinarri espezifikoetan ezarritako betekizun espezifikoaren arabera. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.
- e) Lanpostu bakoitzerako eskatzen diren gainerako betekizun espezifikoak, kasuko oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.
- f) Indarreko araudian ezarrita dauden ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko inolako auzitan sartuta ez egotea.

HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Onartua izateko eta, egokia denean, hautaketa prozesuan parte hartzeko beharrezkoa izango da:

- 1.- Horretarako gaituko den eskabide orria betetzea.
- 2.- Eskabidea ezarritako epe barruan aurkeztea.

Halaber, aurkezpenerako adierazitako epea amaitu aurretik, eskatzen diren betekizun guztiak bete beharko dira, bigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Interesdunek eskabide bat aurkeztu beharko dute parte hartu nahi duten prozesu bakoitzerako.

Hautaketa prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epea irekiko da zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpen bitartekoan argitalpena egiten denean (<https://www.fomentosansebastian.eus/eu/Kontratazioa>). Nolanahi ere, hautaketa prozesu bakoitzerako eskabideak aurkezteko epeak 2023ko abenduaren 31 baino lehen hasiko dira.

Hautaketa prozesuetan parte hartzeko eskabideak hamar egun balioduneko epe barruan aurkeztu beharko dira, epearen hasiera jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Eskabideak hautaketa prozesu bakoitzaren epe hasieraren momentuan zehaztuko den prozeduraren arabera aurkeztuko dira.

Adierazten diren betekizunak eta merezimenduak beteta izateko erreferentzia data izango da eskabideak aurkezteko epearen amaiera.

LAUGARRENA. ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN ZERRENDA.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eskabideak berrikusiko dira lanpostu bakoitzerako eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpen bitartekoan argitaratuko dira.

Zerrenda horietan adieraziko da baztertze arrazoia, egokia denean, eta 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideetan aurkitutako akatsak zuzentzeko, aipatu zerrendak argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Erreklamazioetarako epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, bitarteko bera baliatuta argitaratuko dira onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak.

BOSGARRENA. HAUTAKETA PROZESUAK.

Hautaketa prozesuak oinarri orokor hauetan adierazitako irizpide eta ezaugarri orokorren arabera eta lanpostu bakoitzari dagozkion oinarri espezifikoetan adierazitako irizpide eta ezaugarri espezifikoen arabera garatuko dira, lanpostu bakoitzerako hautagaien amaierako kalifikazioen behin betiko zerrendak argitaratu arte.

5.1 Horretarako, hautaketa batzorde bat osatuko da hautaketa prozesu bakoitzean eta batzorde horietako kideak izendatzeko inpartzialtasun eta profesionaltasun irizpideak errespetatuko dira.

Hautaketa Batzordeak hautaketa prozesuen gardentasuna eta objetibotasuna ziurtatu beharko ditu, bai eta proben konfidentzialtasuna eta deialdiko oinarriak zorrozki betetzen direla ere. Era berean, ahalmena izango du hautaketa prozesuen garapenean agertzen diren zalantzak argitzeko eta garapen egokirako behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera, ondore horretarako oinarrietan aurrekusi ez diren irizpideak ezarrita, beharrezkoa balitz.

Hautaketa Batzordeak aholkularien edo enpresa espezializatuen laguntza jaso ahalko du

egokitzat jotzen dituen izapideak eta probak egiteko, hala nola eskabideak jasotzea edo probak diseinatzea, egikaritzea eta baloratzea.

Hautaketa Batzordeko kideren batek agertu ezingo balu, Zuzendaritzak ordezkoko pertsona bat izendatuko du.

5.2 Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte zortzigarren oinarrian adierazitako jakinarazpen bitartekoan argitalpenak egin ondoren, 3 egun baliodunen buruan, argitalpenaren biharamunetik hasita, eta horretarako ezarritako prozedurari jarraituta.

5.3 Hau izango da hautaketa sistema prozesu motaren arabera:

- Egonkortzeko prozesu bereziak: lehiaketa-oposizio sistema.
- Egonkortzeko salbuespenezko prozesuak: lehiaketa sistema.

5.4 Oposizio eta/edo lehiaketa aldien ezaugarri orokorrak:

OPOSIZIO ALDIA:

Oposizio aldia, dagokionean, derrigorrezkoa eta ez baztertzaila izango da. Gaitasun profesionala baloratzeko erabiliko da, erantzun posible anitzeko galderak osatutako galdetegi bidez eta/edo lanpostuen eginkizun eta jarduera esparruekin lotutako kasu teoriko-praktikoak ebazteko proben bidez.

Hautagaiak probak prestatzeko orientatze aldera, horri buruzko informazioa adieraziko da oinarri espezifikotan.

Hautagaiei deialdi bakarra egingo zaie eta hautagai bat, deitzen zaion momentuan, probetako edozeinetara aurkezten ez bada, proban parte hartzeko eskubidea galduko du automatikoki, horren ondorioz hautaketa prozesutik kanpo geratuta, behar bezala justifikatzen denean eta Hautaketa Batzordeak beregain halakotzat jotzen duenean izan ezik.

Dibertsitate funtzionala duten eta egokitzapen berezia behar duten pertsonen egokitzapenak egingo zaizkie probak egin ahal izateko. Izan ere, horrela, aukera berdintasunean arituko dira gainerako parte hartzaileekin, betiere hori eginda probaren edukia desitxuratzen ez bada eta eskatutako gaitasun maila jaisten edo kaltetzen ez bada.

LEHIAKETA ALDIA:

Lehiaketa aldian hautagaiek adierazitako eta frogatutako merezimenduak aztertu eta balioetsiko dira. Nolanahi ere, adierazitako merezimenduen erreferentzia data eskabideak aurkezteko epearen amaiera izango da eta merezimenduak horretarako ezartzen den epe barruan frogatu beharko dira, ezarritako alegazio eta frogatze prozeduraren arabera.

Aintzat hartzeko moduko merezimenduak eta baremoa hautaketa prozesu bakoitzaren oinarri espezifikotan zehaztuko dira. Balioespena egiteko merezimendu bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, kasu bakoitzerako ezarritako baremoaren arabera.

Lehiaketa ez da baztertzaila izango.

5.5 Horrez gain, euskara proba boluntario eta ez baztertzailerik bat egingo zaie lanpostua lortzeko euskara behar ez duten hautagaiei. Proba horrekin euskararen ezaguera zehaztu eta frogatuko da lanpostu bakoitzaren mailarekiko, arlo horretako erakunde gaitu baten eskutik (euskaltegia).

Lanposturen batek euskara maila jakin bat izatea eskatuko balu, hautagaiek maila hori dutela frogatu beharko dute bigarren baldintzan eta dagozkion oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

SEIGARRENA. AMAIERAKO KALIFIKAZIOA ETA BEHIN BETIKO SAILKAPENA.

Hautagai bakoitzaren amaierako kalifikazioa zehaztuko da oposizio eta/edo lehiaketa aldian lortutako puntuazioak batuta, prozesu motaren arabera. Horri gehituko zaio ere euskara mailaren balioespina lanpostua lortzeko betekizuna ez den kasuetan, betiere hautaketa prozesu bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezarritako baremoaren arabera.

Behin betiko sailkapenaren zerrendan adieraziko da hautagai bakoitzaren lehentasun hurrenkera, lortutako puntuazioaren arabera eta, egokia denean, beheago adierazitako berdinketak hausteko irizpideak hurrenez hurren aplikatuko dira. 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzeari buruzkoak, 20.1.a) artikuluan aurreikusitako lehentasun klausula ez da aplikatuko deitutako lanpostuan ez baitago emakumeen ordezkari txikiarik.

- Erakundearen deitutako lanpostuan, zerbitzu denbora luzeagoa eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio muga eta egunen arabera zenbatuko da.
- Erakundearen zerbitzu denbora luzeagoa eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio muga eta egunen arabera zenbatuko da.
- Beste erakunde batzuetan, deitutakoaren berdina edo baliokidea den lanpostu batean, zerbitzu denbora luzeagoa eman duenaren alde. Ez da kontuan hartuko puntuazio muga eta egunen arabera zenbatuko da.
- Zozketa publikoa.

ZAZPIGARRENA. LANEAN HASTEAK.

Hautaketa prozesu bakoitzean hautatzen diren hautagaiak Sozietatean lanean hasiko dira ezarritako epeetan, lan kontratu mugagabe baten formalizazio bidez, eta Sozietatearen araudiaren mende egongo dira.

Lanpostu beraren zenbait zuzkidura eskaintzen badira, Kudeaketako Zuzendaritzak behin betiko sailkapen ordenaren arabera esleituko ditu zehazki.

Halaber, hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, pertsona hauek horretarako ezarritako epe barruan aurkeztu beharko dituzte eskatzen zaizkien dokumentuak. Hautaketa prozesuan zehar modu fede emailean egiaztatu ez diren dokumentuak aurkeztu beharko dira bakarrik, edo prozesu osoan zehar mantendu beharreko hautagaien inguruabar pertsonalei buruzkoak, hala nola ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez izateari buruzkoak.

Adierazitako epe barruan, ezinbesteko kasuen salbuespen bakarrarekin, dokumentu hauek aurkezten ez badituzte, dokumentuak aztertu ondoren eskatutako betekizunen bat betetzen ez dutela ondorioztatzen bada edo lanpostuari dagozkion atazak gauzatzeko eska daitekeen gaitasunik ez badute, hautagaiak ezingo dira langile lan kontratudun finkoak izan eta beren jarduketa guztiak deuseztatuko dira, eskabidean faltsukeriagatik izan dezaketen erantzukizuna kaltetu gabe.

ZORTZIGARRENA. ARGITALPENAK.

Hautaketa prozesuen deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, deialdia egin duen erakundearen web orrirako esteka adierazita: <https://www.fomentosansebastian.eus/eu/Kontratazioa>.

Hautaketa prozesuetan zehar, garapenaren alderdiekin lotutako informazio guztia <https://www.fomentosansebastian.eus/eu/Kontratazioa> web orrian argitaratuko da jakinarazpen helburuetarako, barne hartuta hautaketa prozesu bakoitzaren eskabideak aurkezteko epearen hasiera.

BEDERATZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA.

Parte hartzaileek eskabideetan adierazitako datu pertsonalak eta deialdi honen prozesuan zehar emandakoak Tratamenduaren Arduraduna den DONOSTIA SUSTAPENA, S.A. erakundeak tratatuko ditu (egoitza soziala: Donostia/San Sebastián (Gipuzkoa), San Roke 120 Etkezuri Eraikina; IFK: A20001681), hautaketa prozesuko parte hartzea kudeatzeko xedearekin eta kontratu aurretiko neurriak aplikatuta hautagaiak hala eskatzen badu.

DONOSTIA SUSTAPENA, S.A. sozietateak Datuak Babesteko Ordezkeri (DBO) bat izendatu du, erakundeko pribatasuna kudeatzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen dena. Ordezkeri horrekin harremanetan jartzeko fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa erabili beharko da.

DONOSTIA SUSTAPENA, S.A. sozietateak parte hartzaileen datu pertsonalak gordeko ditu deialdi honen objektua den hautaketa prozesua behar bezala burutzeko zorrozkizko beharrezkoa den denboran zehar eta bere legezko obligazioak betetzeko erakundeak errespetatu beharreko kontserbazioaldi gehigarrietan zehar.


Deialdi honen objektua den hautaketa prozesua publizitate printzipioaren arabera arautzen da, beraz, zortzigarren oinarrian adierazitako bitartekoan argitaratuko dira onartutakoen eta

baztertutakoen zerrendak, parte hartzaileek lortutako puntuazioak eta amaierako emaitzak. Horretarako, NANaren bidez adieraziko da identitatea.

Interes publikoan oinarritutako datuen komunikazioa den argitalpen hori gorabehera, eta legez derrigorrezkoa den kasuetan izan ezik (adib. epaileek, epaitegiek eta/edo agintari publikoek hala eskatuta), parte hartzaileen datu pertsonalak ez zaizkie hirugarrenei helaraziko. Datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik ere ez da aurreikusi.

Parte hartzaileek eskubide hauek izango dituzte: (i) beren datu pertsonalak atzitzea eskatzea eta datuok zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, datuen eramangarritasuna eskatu eta tratamendua aurkaratzea, egokia denean, helbide elektronikoko honetara zuzendutako idazki bidez: fomentoss@donostia.eus; eta (ii) Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean edo beste edozein Kontrol Agintaritzan eskudunen aurrean erreklamazioa aurkeztea, batez ere beren eskubideak baliatu ondoren pozik gelditu ez badira.

Donostia, 2022ko abenduak 22



Iñigo Olaizola Arcaute
Zuzendari Kudeatzailea